

## **KIROL ESKALADAKO LEHIAKETETARAKO ARBITRO IKASTAROA** **FEDME TITULAZIOA**

### **ESKALADAKO OINARRIZKO ARBITROA**

**ANTOLATZAILEA:** EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

**HELBURUAK:**

- EEAM/FEDME titulazioa izango duten kirol eskaladako arbitroen talde bat prestatzea.
- Lehiaketa edo proba ofizialetarako arbitraje ofiziala eskaintzea.
- Kirol eskaladako askotariko lehiaketa eta probak arbitratzeko orduan irizpideak bateratzea.

**TITULAZIOAREN ESKUMENAK:**

Federazioaren titulu honek kirol eskaladako lehiaketa mota orotan arbitraje funtzioak betetzeko eskumena ematen du, eskala modalitate guztietan: lehen aldiko nahiz entseatutako zailtasun eskaladan, bloke eskaladan eta abiadura eskaladan.

**NORI ZUZENTZEN ZAIEN:**

Kirol eskaladako lehiaketetan arbitro lanak egiteko beren burua prestatu nahi duten kirolari federatu guztiei; Euskal Mendizale Federazioaren titulua lortuko du, EEAM/FEDMEk homologatutakoa.

Batez ere, kirol eskaladako lehiaketekin zuzeneko harremana duten antolatzaileei, entrenatzaileei eta kirolariei zuzentzen zaie.

**PARTE HARTZAILEEK BETE BEHARREKO GUTXIENeko BALDINTZAK:**

Urte horretako Federazioaren Lizentzia, FEDMEk onetsia, izatea; hemezortzi urte beteta edukitzea, eta eskola graduatua edo LOGSEn baliokidea dena izatea; kirol eskaladari buruzko ezaguerak izatea.

**IRAKASLEAK:**

Kirol eskaladako arbitroak eta ekipatzaileak.  
Antzeko ikasgaietan lizentziatutakoak.

**IKASLE KOPURUA:**

12 gutxienez eta 20 gehienez; ez da jende gehiago onartuko.  
Dokumentazio guztia dakarten eskaerak jasotzen diren ordena hartuko da kontuan izena ematerakoan.

**NON IZANGO DEN:**

Mendizorrotza Kirol Etxean/ Vitoria-Gasteizko udal rokodromoetan  
Helbidea: Amadeo Garcia de Salazar plaza, 2  
**01.007 VITORIA-GASTEIZ**



euskalmendizalefederazioa  
FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION



### GAI ZERRENDA:

Federazio egitura

Lehiaketen lege esparrua

Kirol eskaladako lehiaketetarako araudia

Diseinua, markaketa eta segurtasuna lehiaketetan

Dopinaren aurkako prozedura

Emaitzei buruzko txosten eta fitxen lanketa

Lehiaketen antolamendua

Praktika: segurtatzea, lehiakideen sokazko loturak gainbegiratzea, bideoak ikustea

### IRAKASTORDUAK:

26 ordu, eta ikastaroa amaitu ondoren praktiketan egingo diren orduak; praktikaldi horretan, GAI kalifikazioa lortu behar da, eta lehiaketa ofizial batean tutore batek gidatuta parte hartuko da.

### EBALUAZIOA:

Etengabeko ebaluazioa egingo da, eta honako hauek hartuko dira kontuan:

- Prestakuntza garaian ikasleak duen jarrera eta jokabidea.
- Puntueltasuna eta asistentzia.
- Emandako gai teorikoei dagokien proba, test modukoa.
- Aplikazioa eta segurtasuna, praktikak egiten diren garaian.

### IKASTAROAN IZAN EMATEAK DUEN KOSTUA:

**215,- €.**

DATAK: 2010ko apirilaren 10 eta 11an, eta 17 eta 18an.

### AURREZ IZENA EMATEKO EPEA:

2010ko martxoaren 31era arte

### IZENA EMATEKO FITXA BETE

Eta hona bidali:

Euskal Mendizale Federazioa

Anoeta Pasealekua, 24

Telefonoa: 943.47.42.79 – Fax: 943.46.24.36

E-maila: [emf.donosti@emf-fvm.com](mailto:emf.donosti@emf-fvm.com)

20.014 DONOSTIA

### IKASTAROAREN KOORDINAZIOA ETA BERONI BURUZKO INFORMAZIOA:

Antxon Burcio Martín – Euskal Mendizale Federazioko Zuzendari Teknikoa

Telefonoa: 615.74.95.08 - E-maila: [zuzendaritza@emf-fvm.com](mailto:zuzendaritza@emf-fvm.com)

### IKASTAROA EGITEKOTAN EMAN BEHARREKO AGIRIAK:

Izena eman dutenak gutxieneko kopurura iritsi direlako ikastaroa egiten bada, antolatzaileak harremanetan jarriko dira interesdunekin, honako agiri hauek igor diezazkieten:

Izen-abizenak, bazkide den taldea edo kluba, 2 argazki agirietarako, eskatzen den titulazio akademikoaren fotokopiak, FEDMEk onetsitako Federazioaren Lizentziaren fotokopia, eta Euskal Mendizale Federazioaren izenean bankuan egindako transferentziaren kopia. Hauxe adieraziko da bertan: Kirol Eskaladako Lehiaketetako Arbitro Titulaziorako Ikastaroa. Kontu honetan sartuko da dagokion diru kopurua:

**KUTXA GIPIUZKOA-DONOSTIA:**

**Kontu zenbakia: 2101 0081 11 0012018305**



euskal mendizale federazioa  
FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION



**FEDME**  
FEDERACIÓN ESPAÑOLA  
DE DEPORTES DE MONTAÑA Y ESCALADA

## **PROGRAMA / ORDUTEGIAK:**

### LARUNBATA – 2010/04/10

09:00-9:30 Ikastaroaren aurkezpena  
09:30-11:00 Federazio egitura  
11:00-11:30 Atsedena  
11:30-13:00 Lehiaketan lege esparrua

15:30-17:30 Araudiak  
17:30-18:00 Atsedena  
18:00-19:30 Araudiak  
19:30-21:00 Dopinaren aurkako prozedura

### IGANDEA – 2010/04/11

09:00-11:30 Araudiak  
11:30-12:00 Atsedena  
12:00-14:00 Araudiak

15:30-17:30 Lehiaketan antolamendua  
17:30-18:00 Atsedena  
18:00-20:30 Emaizten buruzko txosten eta fitxen lanketa

### LARUNBATA – 2010/04/17

09:00-11:00 Diseinua, markaketa eta segurtasuna lehiaketetan  
11:00-11:30 Atsedena  
11:30-13:30 Diseinua, markaketa eta segurtasuna lehiaketetan

16:00-18:00 Diseinua, markaketa eta segurtasuna lehiaketetan  
18:00-18:30 Atsedena  
18:30-20:30 Diseinua, markaketa eta segurtasuna lehiaketetan

### IGANDEA – 2010/04/18

9:30-10:30 Bideoak ikustea  
10:30-11:00 Atsedena  
11:00-12:00 Praktika: segurtatzea eta lehiakideen sokazko loturak gainbegiratzea

12:00-13:30 AZTERKETA